



EUSKADIKO HAUTESKUNDE  
ADMINISTRAZIOA  
AUTONOMIA ERKIDEGOKO  
HAUTESKUNDE BATZORDEA

ADMINISTRACIÓN ELECTORAL DE  
EUSKADI  
JUNTA ELECTORAL DE LA  
COMUNIDAD AUTÓNOMA

AKTA, AUTONOMIA ERKIDEGOKO  
HAUTESKUNDE BATZORDEAK 2016KO  
ABUZTUAREN 29AN EGINDAKO BILERARI  
DAGOKIONA

ACTA DE LA REUNIÓN DE LA JUNTA  
ELECTORAL DE LA COMUNIDAD  
AUTÓNOMA CELEBRADA EL DÍA 29 DE  
AGOSTO DE 2016

Gasteizen, 2016ko abuztuaren 29an, 09:05ean, bilkura hasi du Autonomia Erkidegoko Hauteskunde Batzordeak. Juan Luis Ibarra Robles jaunaren lehendakaritzapean, Emilio Palomo Balda jauna, Modesto Iruretagoyena Iturri jauna, Jon Larrinaga Zulueta jauna, Fidel Ignacio Uriarte Pérez jauna eta Iker Urbina Fernández jauna bildu dira. Bileran izan da, halaber, Eduardo Mancisidor Artaraz jauna, batzordearen idazkaria, Eugenio Artetxe Palomar jauna, Administrazioako ordezkaria eta Agustín Peña Irala jauna, Hautesle Erroldaren Bulegoko ordezkaria, eta Josu Osés Abando jauna, legelaria. Bilerara ez joatea aitzakiatu dute Luis Javier Murgoitio Estefanía, José Luis Asenjo Pinilla, Luis Ángel Garrido Bengoechea jauna, Javier García Pascual jauna eta Miguel Alonso Belza jaunek.

En Vitoria-Gasteiz, siendo las 09:05 horas del día 29 de agosto de 2016, se reúne la Junta Electoral de la Comunidad Autónoma bajo la presidencia del Excmo. Sr. D. Juan Luis Ibarra Robles y con la asistencia de D. Emilio Palomo Balda, D. Modesto Iruretagoyena Iturri, D. Jon Larrinaga Zulueta, D. Fidel Ignacio Uriarte Pérez y D. Iker Urbina Fernández. Asiste, también, el secretario de la Junta, D. Eduardo Mancisidor Artaraz, el Delegado de la Administración, D. Eugenio Artetxe Palomar, el representante de la Oficina del Censo Electoral, D. Agustín Peña Irala y el letrado D. Josu Osés Abando. Han excusado su ausencia los Sres. D. Luis Javier Murgoitio Estefanía, D. José Luis Asenjo Pinilla, D. Luis Ángel Garrido Bengoechea, D. Javier García Pascual y D. Miguel Alonso Belza.

Ondoren, jasotako idazkiei dagokienez, batzordeak honako erabaki hauek hartu ditu:

A continuación, en relación con los escritos recibidos, la Junta adopta los siguientes acuerdos:

1.- Idazkia  
Izendatu ditu titularra eta ordezkoa Irrati eta Telebistako Batzorderako (1182)

1.- Escrito  
Designa a la titular y suplente para el Comité de Radio y Televisión (1182)



Nork :Partido Popular, ordezkari orokorren ordezkoa

Origen: Partido Popular, representante general suplente

Batzordea jakitun geratu da.

La Junta toma conocimiento.

## 2.- Erabakia

Luzatzea CERAn eta ERTAn izen emandako hautesleen botoa eskatzeko epea, Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan, 2016ko irailaren 5a arte, astelehena (1183)

## 2.- Acuerdo

Ampliación del plazo de solicitud del voto de los electores inscritos en el CERA y en el ERTA en las elecciones al Parlamento Vasco, hasta el lunes 5 de septiembre de 2016 (1183)

Nork :Hauteskunde Batzorde Zentrala

Origen: Junta Electoral Central

Gai hau tramitatu egin da.

Este asunto ha sido tramitado.

## 3.- Idazkia

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Hauteskunde Batzordeko kide batek egindako adierazpenak direla-eta Arnaldo Otegi Mondragonek EH Bilduko hautagai gisa duen egoerari buruz (1184)

Nork :Gipuzkoako LHko Hauteskunde Batzordea

## 3.- Escrito

En relación con las declaraciones un miembro de la Junta Electoral del Territorio Histórico de Gipuzkoa sobre la situación de Arnaldo Otegi Mondragon como candidato de EH Bildu (1184)

Origen: Junta Electoral del TH de Gipuzkoa

Autonomia Erkidegoko Hauteskunde Batzordeak, 2016ko abuztuak egindako bileran, honako akordio hau hartu du:

La Junta Electoral de la Comunidad Autónoma, en su reunión de 29 de agosto de 2016, ha adoptado el siguiente acuerdo:

### I.-Eskumena

Batzorde honek aditzera ematen du eskumena duela ebazteko EH Bilduren ordezkari orokorrak Iñaki Agirreazkuenaga Zigorrage jaunaren, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Hauteskunde Batzordeko kide ez-judizialaren, aurka planteatutako intzidentea, LRJAP-PAC-en 30/1992 Legearen 29.4 artikuluan xedatutakoaren arabera, lege hau aplikatu behar baita ordezkari zuzenbide gisa Euskal Hauteskunde Legearen Azken Xedapenetako Lehenengoan eta LOREG-en 120. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

### I.-Competencia:

Esta Junta declara su competencia para resolver el incidente planteado por el Representante General de EH Bildu contra D. Iñaki Agirreazkuenaga Zigorrage, vocal no judicial de la Junta Electoral del Territorio Histórico de Gipuzkoa, de acuerdo a lo dispuesto en el artículo 29.4 de la ley 30/1992 de LRJAP-PAC, aplicable como derecho supletorio de acuerdo con lo previsto en la Disposición Final Primera de la Ley electoral vasca y 120 de la LOREG.



II.- Izatezko aurrekariak: Intzidentea arrazoitzen duten adierazpenetan, Iñaki Agirreakuenaga Zigorraga jaunak:

a) dio Otegi jaunaren inhabilitazioa erabaki judiziala dela eta ez berez Hauteskunde Batzordearena, hura kontrastatu besterik ez baitu egiten: "Inhabilitatuta dago epai irmo bat badelako, ez Hauteskunde Batzordeak dioelako" "Inhabilitatuta dago epai irmo bat duelako, ez Hauteskunde Batzordeak nahi duelako, Batzordeak esan du epai irmo bat dagoela" eta gaineratzen du organo administratibo batek ezin duela hori aldatu: "Hori ezin du aldatu: organo administratiboa da". Ideia hori bera aipatzen du berriz ere, esaten duenean gai formal bat dela zeinaren mamian sartzerik ez baitauka Batzordeak: "Joko-zelaia formala da: auzitegiek inhabilitatu egin dute, ez dago askatasunik baiezkorik erabakitze" "Gure joko muga formala da: auzitegiek inhabilitatuta badago, ez dago askatasunik baiezkoa erabakitze" .

b) bere adierazpenetan zehar Agirreakuenaga jaunak kontsideratzen du ezen Otegi jaunak inhabilitazioa gainditzeko balizko bide bakarra etor litekeela Giza Eskubideen Europako Auzitegitik, kautelazko neurri baten bidez: "Juridikoki, mamia Estrasburgon dago. Beraz, badu aukera kautelazko neurriak hartzeko" "Juridikoki, mamia Estrasburgon dago. Beraz, aukera du kautelazko neurriak hartzeko", zeren Espainiako auzitegiek Hauteskunde Batzordearen muga bera bailukete: "Auzibideen Epaitegiak muga bera du eta Konstituzioarenak ere bai. Epaiak ezin dira mugitu" "Administrazio auzitegiak muga berak ditu, eta Konstituzionalak ere bai. Epaiak ezin dira mugitu".

c) Agirreakuenaga Zigorraga jaunak dio desberdintasuna badela Otegi jaunaren

II.- Antecedentes de hecho: En las declaraciones que motivan el incidente, el señor Iñaki Agirreakuenaga Zigorraga:

a) Indica que la inhabilitación del señor Otegi es una decisión judicial y no propiamente de la Junta Electoral que se limita a constatarla: "Está inhabilitado porque hay una sentencia firme, no porque la Junta Electoral lo diga" "*Inhabilitatuta dago epai irmo bat duelako, ez Hauteskunde Batzordeak nahi duelako, Batzordeak esan du epai irmo bat dagoela*" y añade que un órgano administrativo no puede cambiar eso: "*Hori ezin du aldatu: organo administratiboa da*". Insiste en esta misma idea cuando afirma que es una cuestión formal en cuyo fondo no puede entrar la Junta: "El campo de juego es formal: los tribunales lo han inhabilitado, no hay libertad para decidir un sí" "*Gure joko muga formala da: auzitegiek inhabilitatuta badago, ez dago askatasunik baiezkoa erabakitze*".

b) A lo largo de sus declaraciones el señor Agirreakuenaga considera que la única vía posible para que el señor Otegi superara la inhabilitación podría proceder del Tribunal Europeo de Derechos Humanos, por la vía de una media cautelar: "Jurídicamente, el fondo está en Estrasburgo. Por tanto, tiene la posibilidad de que se adopten medidas cautelares" "*Juridikoki, mamia Estrasburgon dago. Beraz, aukera du kautelazko neurriak hartzeko*", ya que los tribunales españoles tendrían el mismo límite que la Junta Electoral: "el Juzgado de lo contencioso tiene el mismo límite y el Constitucional también. Las sentencias no se pueden mover" "*Administrazio auzitegiak muga berak ditu, eta Konstituzionalak ere bai. Epaiak ezin dira mugitu*".

c) El señor Agirreakuenaga Zigorraga afirma la diferencia entre el caso del señor



kasuaren eta Casanova jaunaren eta Beloki andrearen kasuen artean, aditzera emanaz lehenengoari dagokionez baduela sufragio pasiborako inhabilitazioa, eta auzia dela noiztik kontatzen den: "Otegi sufragio pasiborako inhabilitazioa du: ezin da hautatua izan. Auzia da noiz hasten den kontatzen." "Otegi sufragio pasiborako inhabilitazioa dauka: ezin da aurkeztua izan. Gakoa da noiztik hasten den kontatzen" eta gaineratzen du ezen Auzitegi Nazionalak zehaztu zituela zenbaketaren datak Otegi jaunaren abokatuek errekurritu gabe.

III.- Kontsiderazio juridikoak: Adierazpen horien aurrean, Batzordeak kontsideratzen du:

1. Agirreazkuenaga Zigorraga jaunaren adierazpenek aipatu egiten zuten Gipuzkoako Lurralde Historikoko Hauteskunde Batzordearen 2016ko abuztuaren 24ko akordioa, zeinaren arabera, Auzitegi Nazionaletik jasotako komunikazioa ikusirik, ondorioztatzen baita Otegi Mondragón jauna erori egiten dela Euskal Hauteskunde Legearen 4.7 b) artikuluan aurreikusitako hautaezintasun-arrazoiaren pean LOREG-en 6.2 b-ari dagokionez. Antzemandako irregulartasun hau jakitera eman zitzaion EH Bilduren ordezkari orokorrari hilaren 24an berean, bi eguneko epea eman zitzaiola akordioari helegitea jartzeko.

2. Adierazpenek, beraz, hizpide darabilte behin betikoa ez zen akordio bat, epe bat bazuena, eta epe hori amaitu egin zen Agirreazkuenaga Zigorraga jaunaren adierazpenak agertu ziren egun berean eta artean ere behin betiko akordioa hartu gabe dagoenean, zeren hautagaien-zerrenden betin betiko aldarrikatzea hauteskunde-egutegiaren arabera 2016ko abuztuaren 29an egin behar baita

Otegi con los del señor Casanova y la señora Beloki, indicando que en el caso del primero tiene una inhabilitación para el sufragio pasivo, siendo la cuestión desde cuándo se cuenta: "Otegi tiene una inhabilitación para el sufragio pasivo: no puede ser elegido. La cuestión es cuándo se empieza a contar." "*Otegi sufragio pasiborako inhabilitazioa dauka: ezin da aurkeztua izan. Gakoa da noiztik hasten den kontatzen*" y añade que la Audiencia Nacional fijó las fechas del cómputo sin que los abogados del señor Otegi recurrieran.

III.- Consideraciones jurídicas: A la vista de estas declaraciones, la Junta considera:

1. Las declaraciones del señor Agirreazkuenaga Zigorraga hacían referencia al acuerdo de la Junta Electoral del Territorio Histórico de Gipuzkoa de 24 de agosto de 2016, por el que a la vista de la comunicación recibida de la Audiencia Nacional se deduce que el señor Otegi Mondragón está incurso en la causa de inelegibilidad prevista en el art. 4.7 b) de la Ley electoral vasca en relación con el 6.2 b) de la LOREG. Esta irregularidad advertida le fue comunicada al Representante General de EH Bildu el mismo día 24, dándosele un plazo de dos días para recurrir el acuerdo.

2. Las declaraciones, por tanto, se refieren a un acuerdo no definitivo para el que existía un plazo que concluyó el mismo día en el que aparecieron las declaraciones del señor Agirreazkuenaga Zigorraga y cuando aún no se ha adoptado el acuerdo definitivo, ya que la proclamación definitiva de las listas de candidatos conforme al calendario electoral debe producirse el lunes 29 de agosto de 2016.



(astelehena).

3. Ez dirudi eztabaidagarria Agirreazkuenaga Zigorrage jaunak aurreratu egin zuela behin betiko akordioa, hain zuzen ere, hark esandakoen arabera, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Hauteskunde Batzordeak hartuko lukeena. Beste hitz batzuek esanik, Agirreazkuenaga Zigorrage jaunak badirudi a limine baztertu egiten duela EH Bilduren ordezkari orokorrak aurkez litzakeen balizko alegazioen baliagarritasuna.

4. Alegazioetarako 2 eguneko epea eman duen Hauteskunde Batzorde bateko kideentzat beharrezkoa da alegazioak kontuan hartzea bere deliberazioan, behin betiko erabakia hartu baino lehen. Alde horretatik, Agirreazkuenaga Zigorrage jaunaren adierazpenek talka egiten dute prozeduraren alegazio-tramitearekin eta alde aurretik moldatzen dute, haren adierazpenen arabera, Hauteskunde Batzordeak nahitaez eman beharra daukan epaia.

5. Hauteskunde Batzordeak administrazio-organoak dira eta objektibitatez eta inpartzialtasunez jardun behar dute, eta bistan da inpartzialtasun hori galdu egiten dela norbaitek aurreratzen duenean bere errekurtsoaren azken emaitza artean ere interesdunaren alegazioak jaso gabe eta hura ebatzi beharra daukan organo kolegiatuan egin behar den deliberaziotik kanpo.

6. Agirreazkuenaga Zigorrage jaunaren alegazioa, hau da, bere adierazpenak egin zituela bere kabuz eta ez Batzordearen ordezkari gisa eta hala zehaztu zela elkarrizketan bertan, antzua da zeren ezin ihardetsizko datua baita gaiari buruz ebatzi behar duen Hauteskunde Batzordeko kide dela. Ez da aintzat hartzekoa ere haren beste

3. No parece discutible que el señor Agirreazkuenaga Zigorrage anticipa el acuerdo definitivo que, a tenor de sus declaraciones, iría a adoptar la Junta Electoral del Territorio Histórico de Gipuzkoa. Dicho en otros términos, el señor Agirreazkuenaga Zigorrage parece descartar a limine la utilidad de las posibles alegaciones que pueda presentar el Representante General de EH Bildu.

4. Para los miembros de una Junta Electoral que ha concedido un plazo de dos días para alegaciones es obligado tomarlas en cuenta en su deliberación antes de tomar la decisión definitiva. En este sentido, las declaraciones del señor Agirreazkuenaga Zigorrage chocan con el trámite de alegaciones en el que se encontraba el procedimiento y prefiguran de antemano el resultado al que, a tenor de sus declaraciones, está indefectiblemente abocada la Junta Electoral.

5. Las Juntas Electorales son órganos administrativos que deben actuar con objetividad e imparcialidad, y es evidente que esa imparcialidad se pierde cuando alguien anticipa el resultado final de un recurso sin haber recibido las alegaciones del interesado y al margen de la deliberación en el órgano colegiado llamado a resolver.

6. La alegación del señor Agirreazkuenaga Zigorrage en el sentido de que hizo sus declaraciones a título personal y no en representación de la Junta, y de que así se explicitó en la misma entrevista, resulta inane por cuanto el dato incontestable es que se trata de un miembro de la Junta Electoral que está llamada a resolver sobre



alegazio bat ere, alegia, hedabide hori minoritarioa dela, ukazina delako zenbaterainoko ondorioa izan duten adierazpenek. Batzordeak ez du kolokan jartzen adierazpenen xede pedagogikoa, baina egia esan, asmoetatik harago, eta alde batera utziz zein den arriskutsu oraindik behin betikoa ez den erabaki bat azaltzen saiatzea, berorrek jendaurrean aurreratzen du bere behin betiko jarrera gaiari buruz.

7. Agirreazkuenaga Zigorruga jaunaren adierazpenak inkardinatu egin daitezke 28.2.a) artikuluan xedatutakoan, LRJAP-PAC 30/1992 Legearen 29. artikuluari dagokionez "Interes pertsonala edukitzea ebatzi beharreko gaian", kasu honetan zeren zilegizko interes intelektual bat izanez jendaurrean konprometitu baitu zein izango den gaiari buruzko bere behin betiko jarrera alegazioetarako epea zabalik dagoela eta partaide den organoa bildu baino lehen deliberatu eta bere behin betiko erabakia hartzeko, dena ere Batzordeak erakutsi beharra daukan objektibitate-itxuraren kaltetan.

Horregatik guztiagatik Autonomia Erkidegoko Hauteskunde Batzordeak ebatzi du:

- Aintzat hartzea EH Bilduren ordezkari orokorraren errekusatze-intzidentea eta agintzea Agirreazkuenaga Zigorruga jaunak ez dezala eskurik hartu Gipuzkoako Lurralde Historikoko Hauteskunde Batzordearen bileran gai-zerrendako Arnaldo Otegi Mondragon hautagaiari buruzko puntuan.

- Agirreazkuenaga Zigorruga jaunak, aurreko paragrafoan xedatutakoaz landa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Hauteskunde Batzordeko kide izaten

el asunto. Tampoco es atendible su alegación de que se trataba de un medio minoritario por cuanto es innegable la trascendencia alcanzada por las declaraciones. La Junta no cuestiona la finalidad pedagógica de las declaraciones, pero lo cierto es que más allá de las intenciones, y de lo aventurado de tratar de explicar una decisión que aún no es definitiva, la misma anticipa públicamente su posición definitiva sobre la cuestión.

7. Las declaraciones del señor Agirreazkuenaga Zigorruga son incardinables en lo dispuesto en el artículo 28.2.a), en relación con el 29 de la Ley 30/1992 LRJAP-PAC -Tener interés personal en el asunto de que se trate...-, en este caso por cuanto tratándose de un legítimo interés intelectual ha comprometido públicamente cuál será su posición definitiva sobre el asunto estando abierto el plazo de alegaciones y antes de que el órgano del que forma parte se reúna para deliberar y adoptar su decisión definitiva, todo ello en menoscabo de la apariencia de objetividad que debe mantener la Junta.

Por todo ello la Junta Electoral de la Comunidad Autónoma resuelve:

- Estimar el incidente de recusación del Representante General de EH Bildu y ordenar que el señor Agirreazkuenaga Zigorruga se abstenga de intervenir en la reunión de la Junta Electoral del Territorio Histórico de Gipuzkoa en el punto del orden del día referente al candidato Arnaldo Otegi Mondragón.

- El señor Agirreazkuenaga Zigorruga, al margen de lo dispuesto en el apartado anterior, mantiene su condición de vocal de la Junta Electoral del Territorio Histórico de



jarraitzen du guztiz eta osotara.

Gipuzkoa en toda su integridad y plenitud.

#### 4.- Idazkia

Adierazten du izan nahi duela Bizkaiko lurraldeko Escaños en Blanco (EB)-ko hauteskunde-zerrendakoa eta ez Gipuzkoako Ganemos Euskadi: Sí se puede-koa, azken honetan ere ageri baitzen 21. postuan (1185)

Nork :García Lamas, Vanesa

Gai hau tramitatu egin da.

#### 4.- Escrito

Señala que quiere pertenecer a la lista electoral de Escaños en Blanco (EB) por el territorio de Bizkaia y no a la de Ganemos Euskadi: Sí se puede de Gipuzkoa, donde también aparecía en el puesto 21 (1185)

Origen: García Lamas, Vanesa

Este asunto ha sido tramitado.

#### 5.- Idazkia

Izendatu du titularra Irrati eta Telebistako Batzorderako (1186)

Nork :EH Bildu Federakunde

Batzordea jakitun geratu da.

#### 5.- Escrito

Designa a la titular para el Comité de Radio y Televisión (1186)

Origen: Federación EH Bildu

La Junta toma conocimiento.

#### 6.- Idazkia

Lurralde bateko baino gehiagoko bi hauteskunde-zerrendatan ageri ziren Ganemos Euskadi: sí se puede koalizioko hautagaiei buruz (1187)

Nork :Ganemos Euskadi: sí se puede koalizioa

Gai hau tramitatu egin da.

#### 6.- Escrito

En relación con los candidatos de la coalición Ganemos Euskadi: sí se puede que aparecían en dos listas electorales de diferentes territorios (1187)

Origen: Coalición Ganemos Euskadi: sí se puede

Este asunto ha sido tramitado.

#### 7.- Erabakia

Irrati eta Telebista Batzordea izendatzea eta hautagai-zerrendei dagozkien doako denbora globalak banatzea (1188)

Nork :Autonomia Erkidegoko Hauteskunde Batzordea, idazkaria

Irrati eta Telebista Batzordea, Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeei buruzko

#### 7.- Acuerdo

Designación del Comité de Radio y Televisión y distribución de tiempos gratuitos globales que corresponden a las distintas candidaturas. (1188)

Origen: Junta Electoral de la Comunidad Autónoma, secretario

El Comité de Radio y Televisión, previsto en el artículo 82.2 de la Ley de Elecciones al



Legearen 82.2 artikuluan aurreikusia, honako pertsona hauek osatuko dute.

Jon Miraballes Barrenetxea jaunak, Euzko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vascoren ordezkari (ordezkoa: Luis María Prego Axpe jaunak);

Juan Carlos Balbás Núñez jaunak, Euskadiko Alderdi Sozialista-Euskadiko Ezkerraren ordezkari (ordezkoa: Santiago Ekain Rico Lezama jaunak);

Alejandra Pinedo Mendizábal andreak, Partido Popularraren ordezkari (ordezkoa: Raquel Mariaca Madina andreak);

Igor Sarriegi Zumárraga jaunak, Euskal Herria Bilduren ordezkari.

Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeei buruzko Legearen 83. artikuluan ezarritako irizpideak aplikatuz, onetsi da nola banatzen diren hautagai-zerrendei bozetarako propagandarako dagozkien doako denbora globalak.

EAJ-PNV: 30 minutu  
EH Bildu: 30 minutu  
PSE-EE: 20 minutu  
PP: 20 minutu  
Elkarrekin Podemos: 10 minutu  
Ciudadanos: 10 minutu  
PACMA: 10 minutu  
Recortes Cero - Grupo Verde: 10 minutu  
Ganemos Euskadi: Sí Se Puede: 10 minutu

Behin betiko aldarrikatu eta Autonomia Erkidego osoan aurkezten ez diren hautagai-zerrendei dagokienez, 10 minutuak izango dira Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa (zer barrutitan aurkezten diren aurkeztu ere) gainditzen ez duen lurralde-eremuko hedabide publikoetan (programazioari dagokionez behintzat).

Parlamento Vasco, queda integrado por las siguientes personas:

D. Jon Miraballes Barrenetxea en representación de Euzko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco (suplente: D. Luis María Prego Axpe);

D. Juan Carlos Balbás Núñez en representación del Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra (suplente: D. Santiago Ekain Rico Lezama);

D.ª Alejandra Pinedo Mendizábal en representación del Partido Popular (suplente: D.ª Raquel Mariaca Madina);

D. Igor Sarriegi Zumárraga en representación de Euskal Herria Bildu.

En aplicación de los criterios establecidos en el artículo 83 de la Ley de Elecciones al Parlamento Vasco, se aprueba la distribución de los tiempos gratuitos globales de propaganda electoral que corresponden a las distintas candidaturas.

EAJ-PNV: 30 minutos  
EH Bildu: 30 minutos  
PSE-EE: 20 minutos  
PP: 20 minutos  
Elkarrekin Podemos: 10 minutos  
Ciudadanos: 10 minutos  
PACMA: 10 minutos  
Recortes Cero - Grupo Verde: 10 minutos  
Ganemos Euskadi: Sí Se Puede: 10 minutos

En el caso de las candidaturas que se proclamen definitivamente y no se presenten en toda la Comunidad Autónoma los 10 minutos serán en aquellos medios públicos cuyo ámbito territorial o el de su programación no exceda de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa según sean las circunscripciones en las que efectivamente se presenten.





Aztertzeo gai gehiagorik ezean, amaiera eman zaio bilkurari 10:20an.

Sin más asuntos que tratar, y siendo las 10:20, se levanta la sesión.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko abuztuaren 29a

Vitoria-Gasteiz, 29 de agosto de 2016

**IDAZKARIA / EL SECRETARIO**

**Eduardo Mancisidor Artaraz**

**O.E. / V.ºB.º  
LEHENDAKARIA / EL PRESIDENTE**

**Juan Luis Ibarra Robles**